

Jatorri teknologikoko ideientzako **froga-gune seguru eta kontrolatua** da, benetako erabiltzaileekin

‘Sandbox Finantzarioak’ Kutxabanke babestutako higiezinrentzako rating-egitasmoa hautatu du

- ‘Big datan’ eta analitika aurreratuan oinarritutako egitasmo honek higiezin rating homologatua sortzea proposatzen du
- Proiektua elkarlanean garatu dute Kutxabanke, Cepaderekin eta Ceca patronaleko beste zenbait finantza-erakundek, ‘fintech’ arloko Veltis etxea buru dela

2021ko maiatzaren 18an. Kutxabanke eta beste zenbait finantza-erakundek **Sandbox** izeneko froga-gunera higiezin rating bat sortzeko proposamena aurkeztu dute, eta Ekonomia Ministerioak sustatutako egitasmo honek aukeratu duen ideietako bat izan da, finantza arloan oinarri teknologikoa duten berrikuntzak benetako erabiltzaileekin frogatu ahal izateko.

Sandboxen lehen deialdi honetara 60 proposamenetik gora aurkeztu dira, eta hauetatik 18 hautatu dituzte. Gehienek ordainketa sistemekin, identifikazio biometrikoko sistemekin eta ‘Big dataren’ erabilerarekin zerikusia dute. Kutxabanke, Ceca patronaleko beste zenbait erakunderekin, Refinitiv-ekin eta Cepaderekin elkarlanean garatutako proiektua aurkeztu du, ‘fintech’ arloko Veltis etxeak zuzendutakoa.

Higiezin rating bakarra homologatzeko sistema bat proposatzen du, ikuskatzaileek eta araudiek erabiltzen ez duten kontzeptu berritzailea da, beraz. Izan ere, finantza-erakundek gaur egun higiezin arriskua neurtzeko barneko sistemak erabiltzen dituzte, norberak bereak, non higiezin bermeak aztertzen baitira, baina aktibo horientzako kalifikazio agentziarik eta kalifikazio-estandarrik gabe.

Higiezin rating komuna erabiltzeak **hobekuntza nabariak** ekarriko lituzke, era honetako aktibo higiezin ezagutza eta arriskuen kudeaketaren analisi-maila perfektionatu luke, adibidez, klima-aldaketarekin lotutako gertakizunen aurrean.

Sandbox baten ekarpen nagusia finantza alorreko berrikuntza egitasmoentzat ezartzen duen **inguru juridiko segurua** da, erabiltzaileentzat batik bat. Legezko esparru segurua ematen du Sandbox batek, erabat negozio-eredu berritzaileak izanik, egungo legediaren babespean hartzeko aukerarik ez baitu ematen.

Baliabide eta konponbide teknologikoak etengabe barneratzeko jarrera oso aktiboa du



Komunikazio zuzendaritza

● **Prentsa-oharra**

Kutxabankek, bezeroei ahalik eta balio-erantsi handiagoa duen zerbitzua eskaintzeko lehentasunarekin.

